

AFGANISTANGO GOBERNUA. Asanblea Handiaren lehenbiziko bilera egin dute 1.500 ordezkari afganiar baino gehiagok. Herrialdea datozen bi urteetan gidatuko duen presidentea hautatu ostean, beste sei egunez hainbat gai izango dituzte eztabaidagai.

Loya Jirgak Hamid Karzai hautatu du trantsizio gobernuko buru kargurako

Jarduneko presidenteak Zahir Sha errege ohiaren babesa jaso du; honen aldekoek presioak salatu dituzte

Erredakzioa | DONOSTIA

Afganistango Loya Jirgako —Asanblea Handia— 1.500dik goiti ordezkariak Hamid Karzai egungo jarduneko presidentea hautatu zuten atzo heldu diren bi urteetarako behin-behineko presidente. Karzaik trantsizio gobernua gidatuko du eta 2004an hauteskunde orokorrak deitu beharko ditu. Loya Jirga Afganistango errege ohi Mohamed Zahir Shak inauguratu zuen, egun bateko atzerapenarekin, eta astebetean herrialdea nola antolatu eztabaidatuko dute kideek. Zahir Shak Karzairen aldeko hautua egin zuen, astelehenean bere burua hautagaien artetik erretiratu ondoren. Honen aldekoek Sha erretiratzeko nazioarteko presioak salatu zituzten.

Zahir Sharen aldekoen etsipenerako, Afganistango errege ohiak egungo jarduneko presidente Hamid Karzairen aldeko hautua egin zuen. Sharen jarraitzaileek AEB Ameriketako Estatu Batuei egotzi zieten errege ohi presionatu izana, hau Afganistango buru izateko lehiatik erretira zedin.

Zentzu horretan, Paktia probintziako ordezkari Mohammad Gulab Margalek zera esan zuen: «Erregearen jarraitzaileak haserre daude Afganistan gidatuko duenaren inguruko erabakia [Loya Jirgako] dendatik kanpo hartu delako». Ildo bereetik, Homaïum Asefi ordezkariak adierazi zuenez, «oso haserre gaude, ez erregeagatik, ordezkariak ordezkatzaren duten jendearen nahiak errespetatu ez direlako baizik».

Afganistango presidentea ohi Burhanuddin Rabbani, bere aldetik, Loya Jirga bildu baino ordu batzuk lehenago bere hautagaitza erretiratu eta Karzai babestuko zuela iragarri zuen. Bi hautagai hauek erretiratu arren, Karzaiz gain gutxienez ordezkari batek



PHILIPPE LOPEZ-EPA / AMIR SHAH / AP

PRESIDENTE BERRIA. Goian, Afganistango jarduneko presidente Hamid Karzai (eskuinean) eta errege ohi Mohamad Zahir Sha elkarri eskua ematen, atzo, Kabul. Ezkerrean, Burhanuddin Rabbani presidente ohi.

ERREGE OHIAREN MEZUA

Monarkiari uko

Mohamed Zahir Sha Afganistango errege ohiak arazo teknikoak izan zituen inaugurazio hitzaldia komunikabideei helarazteko; izan ere, igorpen sisteman akats bat izan zen eta bere hitzak Loya Jirga bildutako karpa erraldoiaren barrenean soilik entzun ziren. Exiliotik duela bi hilabete itzulia, Zahir Shak erbestean pasatako 29 urteak ekarri zituen atzo gogora. Lehenago ere esana zuen arren, errege ohiak atzo berretsi zuen ez duela errege izateko asmorik. «Ez naiz monarkia berrezartzera itzuli», adierazi zuen.

Zahir Shak Hamid Karzai jarduneko presiden-

tearen lana goretsi eta honen hautagaitza sustatu zuen. 87 urteko errege ohiak Loya Jirgan esandako hitzak bat etorri ziren herenegun Estatu Batuetako Afganistanerako ordezkari berezi Zalmi Khalilzadekin izandako hiru orduko bileraren ondoren Sharen aitzinean irakurritako testuarekin. Shak esan zuen Loya Jirgaren deialdia berak duela hamar urte abiatu ekimenaren ondorio izan zela. Ekimena iazko azaroan eta abenduan Bonnen (Alemania) Nazio Batuen babesarekin Afganistango talde eta alderdi ezberdinek egin bilkuran zehaztu zuten. Shak esan zuen Islamaren araberrako demokrazia, independentzia, bakea eta batasun nazionala nahi dituela.



—Masuda Jalal— bere burua aurkeztu zuen.

Batasun nazionala

Loya Jirgako presidente Mohammed Ismail Kasemiarrek

asanbleako 1.500dik goiti ordezkariak ongi gertatzen eman ondoren, eta behin Hamid Karzai hautatuta, esan zuen berau Gobernuko buru izendatu ondotik gutxi izango duela eztabaida-

tzeko Loya Jirgak datozen sei egunotan. Kasemiarren esanetan, «herriak Karzai baloratzen du».

Kasemiarrek nabarmendu zuen Afganistango tributetako

ordezkariak osatutako asanblean batasun nazionalerako zantzuak ikusi zirela: «Loya Jirgaren bilkura batasun nazionalaren, bakearen eta adiskidetzaren neurria erakutsi du».